

DOCENTIAZ PROGRAMA  
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren  
ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 5. deialdia

**DOCENTIAZ programan parte hartu duten irakasleek  
programaren garapenez duten iritzian oinarritutako txostena**

2015eko iraila

## **AURKIBIDEA**

	Or.
1. Sarrera	5
2. Galdetegia erantzun duten irakasleek	7
3. Informazioaren analisia	9
4. Ondorioak	10

## **ERANSKINAK**

1. eranskina: Lortutako erantzunak	11
2. eranskina: irakaslearen autotxosten eredia	21
3. eranskina: Irakasleei zuzendutako galdera-sorta eredia	40



## 1. SARRERA

Irakasleen irakaskuntza jarduna ebaluatzeko UPV/EHUK egun duen erreminta dugu **DOCENTIAZ**, ANECAren **DOCENTIA** programak ezarritako betebeharrak betetzen dituen.

**DOCENTIAZ** programa honek irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren eredu du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik.

Bosgarren deialdi hau fase esperimentalean burutu da eta, horregatik, borondatezkotasunari eutsi dio, beharrezkoa baita ebaluazioaren osagai teknikoak behar bezala gehitzeko eta ebaluazio prozesu hau errazago egin dezakeen konfiantzazko giroa sortuko bada. unibertsitateko kideek programa ezagutu, zabaldu eta baliozta dezaten, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) argitara eman zuen aurtengo deialdi hau zerbitzuaren web gunean eta, deialdiarekin batera, eskuliburua eta lehenagoko deialdietako helmuga-ebaluazioaren emaitzak eta ANECA-UNIBASQek emandako txostenak. Halaber, jakinaren gainean jarri ziren ikastegietako dekanok eta zuzendariak eta Gobernu Kontseilua.

Argitara eman baino lehen, hiru unibertsitate campusetan eskaini zitzaizkien prestakuntza ikastaroak unibertsitateko irakasleei Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuari (HLZ) dagokion UIPP programaren barruan, bai eta UPV/EHUKen ikastegi ezberdinetarako bisitaldiak ere.

**DOCENTIAZ** programan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2014ko irailaren 26an hasi eta urriaren 17an amaitu zen, biak barne, eta irakasleek azaroaren 14ra arteko epea izan zen eskaria eta autotxostena osatu ahal izateko.

Autotxostena (ikus, 2. eranskina) tresna baliagarria da **DOCENTIAZ** programan ebaluazio formatiboa egiteko. Bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala: Prestakuntza, berrikuntza, koordinazioa eta hobekuntzarako erakunde jarduerak.

Irakasleei eskatutako datu gehienak automatikoki deskargatzen dira aplikazio informatikora erakundeen datu-baseetatik: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskainitako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte-hartzea, etab.

Txosten honetan jaso da, DOCENTIAZ programan borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia, programa honen bosgarren deialdian. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) galdetegi bat igorri zuen maiatzaren 29an (ikus 3. eranskina), hau betetzeko epea 2015eko ekainaren 22an amaitzen zela. Irakasleek telematikoki erantzun zuten eta modu anonimoan encuestafácil plataformaren bidez. Esan behar da galdetegia erabili zela Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak (IEUB) ebaluazioaren inguruan egindako azken txostena jaso ostean.

Galdera sortak atal irekiak dituen neurketa eskala bat du, Likert erakoa, bost bloke tematikotan banatzen diren 13 galderak osatuta:

- 1) Testuingurua zehazteko itaunak (1-2 galderak)
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiari buruzko itaunak (3-7 galderak)
- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko itaunak (8-9 galderak)
- 4) -Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galdera (10. galdera).
- 5) Bosgarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko itaunak (11-12 galderak)
- 6) DOCENTIAZ programaren balioespen orokorrari eta bere garapenari buruzko galdera irekia (13. galdera).

## 2. GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN IRAKASLEAK


Guztira 238 irakasleri egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 175k bete zuten. Kopuru nahiko altua da, edozein inkesta telematikotan galtzen diren erantzunen kopurua kontuan hartzen badugu. Azken finean, populazioaren %73k erantzun zieten galderei. Parte hartze honen altuak ederto adierazten du irakasleek DOCENTIAZ programarekiko duen interesa.

1. taulak, 1. irudiarekin batera, hurrenez hurren, galdetegiaren 1 eta 2. galderei dagozkien emaitzak aurkezten dira. Lehenengoan, bosgarren deialdi honetan parte hartu zuten UPV/EHUko ikastegi bakoitzean lortutako erantzun kopurua ikus daiteke; bigarrean, ordea, irakasleei dagokien zientzia arloaren araberrako erantzun kopurua.

### 1. taula. Ikastegien araberrako emaitzak

125. Farmazia Fakultatea	9	%5,1
130. Letren Fakultatea	7	%4,0
135. Jarduera Fisikoaren eta Koralaren Zientzien Fakultatea	3	%1,7
151. Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	1	%0,6
160. Gasteizko gizarte langintzako Unibertsitate Eskola	2	%1,1
163. Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	11	%6,3
215. Kimika Zientzien Fakultatea	9	%5,1
224. Zuzenbide Fakultatea	2	%1,1
226. Informatika Fakultatea	5	%2,9
227. Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Donostiako Irakasgunea	1	%0,6
230. Filosofia eta hezkuntza Zientzien Fakultatea	5	%2,9
231. Psikologia Fakultatea	6	%3,4
240. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	5	%2,9
251. Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	3	%1,7
254. Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola	2	%1,1
263. Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	19	%10,9
264. Eibarko Industria Ingenieritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	1	%0,6
310. Zientzia eta Teknologia Fakultatea	11	%6,3
320. Arte Ederren Fakultatea	2	%1,1
321. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	8	%4,6
323. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	26	%14,9
327. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	6	%3,4
345. Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa	11	%6,3
351. Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	4	%2,3
352. Leioako Erizaintza Unibertsitate Eskola	1	%0,6
354. Bilboko Magisteritza Unibertsitate Eskola	5	%2,9
356. Lan Harremanen Unibertsitate Eskola	3	%1,7
363. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	5	%2,9
364. Meatze Ingeniaritza teknikoko Unibertsitate Eskola	2	%1,1
<b>Guztira</b>	<b>175</b>	<b>%100</b>

## 1. Irudia. Zientzia arloen araberako emaitzak



### 3. INFORMAZIOAREN ANALISIA

Bosgarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleen kopurua gagozkiolarik, deialdiak iragan ahala gorantz joan da progresiboki, aurreko urtearekiko parte hartzearen ehunekoari (%73) eutsiz eta goranzko joera erakutsiz, zientzi arlokako erantzunez ari bagara, irakaskuntza teknikoetan eta osasun zientzietan.

Emaitzen analisiari helduta, DOCENTIAZ programa honela ikusten dute bosgarren deialdi honetako irakasleek:

- Hezigarria (% 77,4 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Beharrezkoa (% 98,3 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Egokia (% 93,02 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)

Autotxostena egiteko eginkizunari dagokionean, irakasleen problemak izan dituzten aplikazio informatikoarekin lan egiteko orduan (motela, atsegintasun gutxikoa, ez da funtzionatu ondo...) Eginkizun honetan ageri den beste zailtasun bat izan da azken txostena bete ahal izateko izan den denbora laburra, deialdia hasi eta txosten hori osatu arte. Aipatu ahal da sarritan irakasleen zailtasunetan diruditela zenbait kontzeptu, terminologia teknikoa, formulak eta abar ulertzeko eta zalantzak dituzte dokumentazioa aukeratu eta biltzerakoan (ebidentziak...).

Ebaluaziorako protokoloari oso lagungarri deritzote autotxostena egiteko orduan eta, ondorioz, programaren ebaluazioa gardena gertatzen da kidego honen begietara.

Irakasleek bosgarren deialdi honetan borondatez parte hartzeko izan dituzten arazoiez hitz eginuz, honako hauek lirateke:

- % 72,5ek uste du DOCENTIAZ programak balio duela irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak.
- % 90,2k uste du eginbeharretako bat dela irakaslana ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- % 83,7k uste du balioko duela bere irakaslanaren aitorpena lortzeko.

Hauetz gain, Docentiaz programan parte hartzeko aipatu diren bestelako arazoien artean, kasuan kasuko irakaslearen ikastegiak, sailak edo dekanotzak eta abarrek agertutako interesaren ondoriozkoak lirateke, hautaketa prozesuetan litekeen parte hartzea dela, Aneca, Unibask edo besteren akreditazioak edo hezkuntza berrikuntzarako proiektuak direla.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren ebaluazioari dagokionez, irakasleen % 96k erantzun dute gogobetetze maila altua dutela IEZko pertsonalak emandako arretarekiko.



Azkenik, nabarmentzekoa da irakasleen %82 asebetarik dagoela DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: % 13, nahiko ados: % 33 eta erabat ados: %36). Eta, aldi berean, %79 gogobetarik dago lorturiko emaitzekin.

#### 4. ONDORIOAK

UPV/EHUren Docentiaz programa modu jarraituan ezarri da bost deialdi esperimentaletan zehar, erreferentziatzeko programa bilakatu da UPV/EHUko irakasleentzat, irakaskuntza lana ebaluatzeko erreminta gisa, ikasleak gune eta ardatz dituen ikaskuntza-irakaskuntzarako eredu kooperatibo eta dinamikoa oinarri hartuta.

Bere aldetik, bosgarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengo bat asebetarik dago parte hartu izanagatik, irakasleek prestakuntzarako programa gisa hartzen dute DOCENTIAZ programa, beharrezkoa, neurritz egindakoa eta gardena. Ados agertzen dira, era berean, hiru informazio iturri erabiltzearekin: irakasleak, ikasleak eta ikastegietako kalitate batzordeak.

Bosgarren deialdi honetan, ebaluazio protokoloak izugarri lagundu du autotxostena betetzeko beharra, programaren adierazle bakoitzari emandako puntuazioak alde aurretik jakinda, nahiz eta hurrengo deialdietan areago lan egingo den protokoloaren edukia hobetuko bada.

Irakasleek programa honetan borondatez parte hartzeko dituzten motiboek norberaren aitortza eta irakaskuntza jarduna hobetzea dute helburu.

Oso baikor balioesten da Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak eskainitako arreta eta, denboraren poderioz, uste eta iritzi hau sendotzen joan da.


Jasotako iritziak aintzat hartuta, esan daiteke irakasle gehienak gogobetarik agertzen direla deialdi honetan parte hartuta eta adostasun nahikoaz lortutako emaitzekin.

## 1. eranskina: LORTUTAKO ERANTZUNAK

Galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.

Horrez gain, atal irekia duten galderetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Azterketa kualitatiboan eta ondorengo kategorizazioan, gutxienez bi aldiz agertzen diren iritziak hartu ditugu kontuan.

### 3. itema.- DOCENTIAZ programa:



#### Azterketa tekniko - Populazioa: 155

Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslan ondo egiteko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,368	"%62,58k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%10,32":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,181 - 3,554]	
Laginaren tamaina	155	
Desbiderapen tipikoa	1,184	

Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,497	"%57,42k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%9,03":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,305 - 3,688]	
Laginaren tamaina	153	
Desbiderapen tipikoa	1,209	

Egokia da akreditazio akademikarako		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,523	"%66,45k" hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,353 - 3,692]	Nahiko ados nago
Laginareen tamaina	153	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,070	Gutxien aukeratutako erantzuna "%5,81":


#### 4. itema.- Adierazi, mesedez, autotxostena egitean izan dituzun hiru zailtasun

- **Aplikazio informatikoa:** motela, atsegintasun gutxikoa, ez da ondo funtzionatu, euskarri informatiko aspergarria, zailtasunak aplikazioaren formatuetarako egokitzeko (40).
- **Dokumentazio pilaketa:** zalantzak ebidentziak biltzerakoan (18).
- **Denbora:** denbora gutxi azken txostena egin ahal izateko, denbora gutxi deialdi hasi eta amaitzen den bitartean (16).
- **DOCENTIAZ programaren ulermen orokorra:** (terminologia, informazio nahasia, prozesu konplexua, ebaluazio protokoloaren formulak ulertzeko zailtasunak (13).
- **Ikasleen gida:** (gidaliburua eguneratzeko premia, bere konplexutasuna, zalantzak idazketan...) (7).
- **Autotxostena:** (idazketa, prestaketa...) (5)
- **Erabilitako hizkera:** terminologia espezifikoezia, teknizismoak, ikasgeletako irakas lana adierazteko zailtasunak (5).
- **Merezimenduak:** irakaskuntza merezimenduak kategoria egokietan sailkatzeko zailtasuna (4).
- **Gradu berrietara iragateko prozesua:** irakasgaien izena aldatzea plan berri eta zaharraren artean (3).
- **Beste batzuk:** Denbora luzeegia programa amaitu eta gogobetetze inkesta egin bitartean (2).

#### 5. itema.- Adierazi zenbat denbora eman dituzun autotxostena egiten ( ordutan)


5 ordu baino gutxiago (13)	25 ordu (7)
5-9 ordu (16)	30 ordu (5)
10-14 ordu (28)	35 ordu (3)
15-19 ordu (14)	40 ordu (6)
20-24 ordu (17)	50 ordu (4)
	60 ordu baino gehiago (4)

## 6. itema - Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,649	"%66,23k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxi aukeratutako erantzuna "%4,55":
Ronfiantza tartea (% 95)	[3,484 - 3,814]	
Laginaren tamaina	154	
Desbiderapen tipikoa	1,045	

## 7. itema.- Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da.



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,450	"%70,47k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxi aukeratutako erantzuna "%8,05":
Ronfiantza tartea (% 95)	[3,276 - 3,623]	
Laginaren tamaina	149	
Desbiderapen tipikoa	1,081	

**8. itema.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:**



**Azterketa tekniko - Populazioa: 153**

Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,203	"%57,52k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%12,42":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,001 - 3,404]	
Laginaren tamaina	153	
Desbiderapen tipikoa	1,274	


Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,895	"%72,55k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%3,92":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,733 - 4,056]	
Laginaren tamaina	152	
Desbiderapen tipikoa	1,017	

Uste baitut balioko duela nire irakaslan aintzat hartzeko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,691	"%66,01k" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%7,84":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,504 - 3,878]	
Laginaren tamaina	152	
Desbiderapen tipikoa	1,175	

9. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko


- Ikastegiak, sailak edo bestelako unibertsitate erakundeek adierazitako interesarengatik (ikastegiaren kalitatearen adierazlea, dekanotzaren proposamena...) (20)
- Irakasleen akreditazio prozesuen, oposizioen, lan poltsa, ANECA UNIBASQ... deialdien, JAP deialdiaren edo euskotramoen ondorioz. (14)
- Irakaskuntza hobetzea, irakaslanaren aitortza, metodologia aktiboen justifikazioa... (8)
- Programa nahita ez ezartzeko balitzko premia (5).
- Hezkuntza berritzeko proiektuetan parte hartzea (2).

10. itema.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4,284	"%82,98k" hau aukeratu zuten: Erabat ados nago Nahiko ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%1,42":
Konfiantza tartea (% 95)	[4,138 - 4,429]	
Laginaren tamaina	141	
Desbiderapen tipikoa	0,881	


11. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdian parte hartu dudalako



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,776	"%69,08k" hau aukeratu zuten: Erabat ados nago Nahiko ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%7,89":
Konfiantza tartea (% 95)	[3,572 - 3,981]	
Laginaren tamaina	152	
Desbiderapen tipikoa	1,288	



12. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdian lortutako emaitzekin




Azterketa teknika		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,639	"%64,63k" hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,426 - 3,853]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	147	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,319	Gutxien aukeratutako erantzuna "%8,84":

13. itema.- Programari edo bosgarren deialdi esperimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian.

- **Programari buruz, oro har:**
  - Motibazioa galarazten die programan ilusioz sartzen diren irakasleei, lortutako emaitzak direla megio (5)
  - Programaren bidez ez egiazta daiteke irakaskuntzaren kalitatea (2)
  
- **Balioespen irizpideen inguruan:**
  - Ebaluazioa luzea da, burokratikoegia eta ez du jasotzen irakaskuntzaren errealitatea, ez du "egiazko" irakaskuntza, ikasgelan gertatzen dena balioesten ... ( 18)
    - Ezin daiteke ebaluatu irakaskuntza gainditutako arabera edo ikasleen iritziaren arabera ( 3)
    - Baremo ezberdinak baliatu beharko lirateke irakasle berrien kasuan eta beren egoearen testuingurua zehaztu, irakasle hauek urtero aurkezteko aukera izan beharko lukete... (3)
    - Ezin pareka daiteke bizitza profesional batean zehar egindako lana (tutoregoak, tesiak...) ikastaroak egite hutsarekin... (2).
    - Zenbait parametro ez dira baliozko, ez datoz bat irakaskuntzaren errealitatearekin. (2)
    - Kontutan hartu beharko da UPV/EHUtik kanpoko prestakuntza... (2).

- Balioztapen subjektiboak egiten dira, kopia eta itsatsi erabiltzen da eta sinesgarritasuna kentzen zaio (2).
  - Aurreko 13/14 ikasturteko merezimenduak hartu beharko lirateke aintzat (2)
  - Balio handiago eman beharko litzaioke ingelesezko eta beste hizkuntza ez ofizialezko irakaskuntzari (2).
  - Ebaluazioa masterretara egokitu beharko litzateke, graduatarako diseinatuta baitago (2).
- **1. dimentsioari buruz:**
- Balio arbitrarioa eta gardentasun gutxikoa ematen zaio, motibazioa kentzen du (2)
- **2. dimentsioari eta 3. dimentsioari buruz:**
- Plaza egonkorra betetzen duten irakasleentzat pentsatu da 3D, ez beste inorentzat (3).
  - Ez da bidezkoa 2 eta 3. dimentsioei pisu bera ematea (2).
  - 3. dimentsioan ez da parekagarria masterra osatu eta abian jartzea ikastaroak egitearekin (2).
- **Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzuari buruz:**
- IEZren orientazioa autotxostena egiteko laguntzarik onena izan da (2).
  - IEZk atseginez eta eraginkortasunez erantzuten du (2).
- **Ondorioei buruz:**
- Onurak erdietsi beharko lirateke, soldatak hobetu edo... (2).
  - Programan parte hartzea eta lortutako kalifikazioa aintzat hartu beharko lirateke irakaskuntza bosturtekoak ematerakoan (2).
- **Beste batzuk**
- Inkesta hau beranduegi egiten da eta hasierako xehetasun asko galtzen dira (3).
  - Ikastegien funtzionamendua ezagutu beharko litzateke gomendioa ematerakoan (esaterako: beren ikastegian GRALik zuzendu ezin dezaketen irakasleei gradu amaierako lanak egin ditzaten gomendatzen zaie (2).

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako emaitza multzoaren portzentaje banaketa barne hartzen du:





## **2. eranskina. Irakaslearen autotxosten eredia**





## UPV/EHUKo irakasleen irakaslana ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko 5. deialdia

# Autotxostena

### Irakasleari buruzko informazioa

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Saila: \_\_\_\_\_

Atxikitako ikastegia: \_\_\_\_\_

Ebaluatu beharreko denboraldia: \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_



## AURKEZPENA

Autotxostena ondorengo dimentsioetan egituratuta dago:

0 DIMENTSIOA: Irakaskuntza enkargua eta haren faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, eskolak euskaraz ematea, zenbat irakasgai ematen diren, eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).

1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena:

1.1.- Irakasgaien plangintza

1.2.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena

2. DIMENTSIOA: Emaitzak

2.1.- Arrakasta tasak

2.2.- *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta*

2.3.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak

3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala

3.1.- Irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea

3.2.- Koordinazio instituzionala

3.3.- Prestakuntza

3.3.1.- Jasotako prestakuntza

3.3.2.- Emandako prestakuntza

3.4.- Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak

3.5.- Hedakuntza





## 0 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZA ENKARGUA

Irakaskuntza jardueraren zailtasun maila baloratzen da, hainbat faktoreen arabera

UPV/EHUK berak emango ditu irakaskuntza enkarguari buruzko ebidentziak. 0 dimentsiotik, azken faktore bat ateratzen da: **ondoriozko adierazlea**. Adierazle hori Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordeak irakasle bakoitzaren **behin betiko puntuazioa** kalkulatzeko emandako puntuazioaz biderkatu behar da.

Honako pauso hauek eman behar dira 0 dimentsioan:

1.- Emandako irakaskuntza enkarguaren zenbateko errealak kalkulatu behar da (tutoretzapeko irakasgaiak, eskuz gordetako irakaskuntza enkargua eta murrizketak kanpo utzita), teoria eta praktika talde eta azpitaldeen arabera banatuta.

$K_{urtea_e}$  = Urte bakoitzean emandako kreditu kopurua, taldeka eta azpitaldeka banatuta (teoria, ikasgelako praktikak, laborategiko praktikak, ordenagailuko praktikak, etab.).

2.- Emandako irakaskuntza enkarguaren zenbateko bakoitza biderkatu behar da haiengan eragina duten faktoreekin (1etik 3ra), faktoreen definizio hauen arabera (doktoretzan emandako eskoletan, 3. faktorea aplikatuko da soilik, doktoretzako matrikulak ez baitaude GAUREn grabatuta eta, horrenbestez, ez dira beste ikastegi batean emandako ordutzat jotzen):

$f_1$  = talde bakoitzeko ikasle kopurua

$f_1 = 1$	20 ikasle baino gutxiagoko taldea baldin bada
1,01	20ko edo 20-50 ikasle arteko taldea baldin bada
1,05	50eko edo 50-80 ikasle arteko taldea baldin bada
1,1	80ko edo gehiagoko ikasle taldea baldin bada

$f_2$  = beste ikastegi batzuetan edo, plan gidariaren arabera, antzeko sailetan emandako irakaskuntza (doktoretzako, masterretako eta HELAZeko eskolak ez dira beste ikastegi batzuetan emandakotzat jotzen)

$f_2 = 1$	eskolak irakaslea atxikita dagoen ikastegian ematen baldin baditu
1,05	eskolak beste ikastegi batean edo kideko sailetan ematen baldin baditu

$f_3$  = euskaraz emandako eskolak

$f_3 = 1$	eskolak euskaraz ematen ez baldin badira
1,2	eskolak euskaraz ematen baldin badira

$K_{urtea_e} * f_1 * f_2 * f_3 = KE_{urtea_e}$  = Urte bakoitzean emandako kreditu kopurua, 1etik 3rako faktoreen arabera egokituta

3.- Ondoren, urte bakoitzeko kreditu egokituak gehitu behar dira:

$$\sum KE_{urtea_e} = KE_{urtea} = \text{Urte bakoitzean emandako kreditu egokituak}$$

4.- Urte bakoitzean emandako kreditu egokituaren batezbestekoa kalkulatu behar da ebaluatu beharreko denboraldian:

$$\sum \frac{KE_{urtea}}{Urteak} = \text{BBIZE}_{f1-3} = \text{Batez Besteko Irakaskuntza Zama, 1etik 3rako faktoreen arabera egokituta}$$

5.- Batezbesteko hori 4 eta 5 faktoreez biderkatu behar da, faktoreen definizio hauen arabera:

f4= irakasgai kopurua. Faktore horrek ez ditu aintzat hartzen practicumak, karrera edo gradu amaierako lanak eta master amaierako lanak. Doktoretzan emandako eskolei dagokienez, gutxienez irakasgaiaren kreditu kopuruaren % 30 eman duten irakasleen eskola orduak soilik hartuko dira aintzat; master ofizialetan, 1 kreditu baino gehiagoko eskolak soilik; eta, gainerakoetan, arestiko bi baldintzak betetzen dituzten irakasgaiak soilik (alegia, gutxienez 1 kreditu eta irakasgaiaren kreditu kopuruaren % 30 eman izana).

f4= 1      6 irakasgai baino gutxiago eman baldin baditu  
       1,1     6 irakasgai edo gehiago eman baldin baditu

f5= irakasle berri ez iraunkorrak (atxikiak eta laguntzaile ez iraunkorrak, 5 urte baino gutxiagoko kontratua dutenak)

f5= 1,1     irakasle berrientzat (ez iraunkorrak)  
       1        gainerako irakasleentzat

$\text{BBIZE}_{f1-3} * f4 * f5 = \text{BBIZE}_{f1-5} = \text{Batez besteko irakaskuntza zama, 1etik 5erako faktoreen arabera egokituta}$

6.- Amaierako irakaskuntza enkargua kalkulatzeko, gainerako batez besteko irakaskuntza enkarguak gehitu behar dira (tutoretzapeko irakasgaiak, eskuz gordetako irakaskuntza enkargua eta murrizketak):

Amaierako irakaskuntza enkargua (AIZ) =  $\text{BBIZE}_{f1-5} + \text{BBIZTI} + \text{EBBIZ} + \text{BBMK}$

BBIZE<sub>f1-5</sub> = Batez besteko irakaskuntza enkargua, f1, f2, f3, f4 eta f5 faktoreen arabera egokitua

BBIZTI = Batez besteko irakaskuntza enkargua tutoretzapeko irakasgaietan

EBBIZ = Eskuz gordetako batez besteko irakaskuntza enkargua

BBMK = Batez besteko murrizketa kredituak

7.- Ebaluatu beharreko denboraldiari dagokion irakasteko gaitasunaren batezbestekoa kalkulatu behar da ("lanaldi osokoekin parekatutako" irakasleei 24 kreditu hartzen zaizkie aintzat, eta ez 18, kontratuan hala jartzen duen arren. Lanaldi osoko kontratuetan, urtebete baino laburragoak direnean, kontratuaren iraupenarekiko proportzionala den gaitasuna hartzen da aintzat).

8.- Amaierako irakaskuntza enkarguaren ehunekoa kalkulatu behar da irakasteko gaitasunaren batezbestekoaren gainean:

$$\frac{AIZ}{IGBB} \times 100 = \text{Ehunekoa}$$

9.- Ondoren, ondoriozko adierazlean kalkulatu behar da:

Ehunekoa 110ekoa edo txikiagoa baldin bada      Adierazlea=1  
 Ehunekoa 110-120 artekoa edo 120koa baldin bada Adierazlea=1,1



Ehunekoa 120koa baino handiagoa baldin bada Adierazlea=1,2

10.- Azkenik, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak irakasle bakoitzaren **behin betiko puntuazioa** kalkulatzeko emandako puntuazioaz biderkatu behar da ondoriozko adierazlea



## 1. DIMENTSIOA.- IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzen da, baita irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren edo ez ere

### 1.1.- Gaien plangintza

Azpidimentsio hori baloratzeko Ikasle Gida hartuko da aintzat. Ikasle Gida hori bera eman beharko diezu ikasleei, eta irakasgaiaren jarraipena egiteko behar adina informazio bildu beharko du (ikusi 5. eranskina: ebaluazio protokoloa).

### 1.2.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena

Azpidimentsio horren helburua da hausnarketa bat eragitea: zertan laguntzen du zure irakaslanak irakasgaiari buruzko alderdiak jasotzeko orduan? Jarraian deskriba ezazu labur-labur zein diren zure irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren alderdi garrantzitsuenak. Horretarako, bi hausnarketa ardatz proposatzen dizkizugu.

#### 1.2.1 Ikaslanak

Deskriba itzazu ezazu labur-labur zure irakaskuntza jardueren alderdi aktiboa eta kooperatiboa hoberen islatzen duen ikaslanetako bat. Bereziki baloratuko dira ikasketa helburuen zehaztasunak, ikaslanaren garapenaren plangintza eta, azkenik, ebaluazioaren eta ikasleek eskuratu behar dituzten gaitasunen arteko lotura.

Erants ezazu ikasleei ematen diezun zereginaren adibide bat, autotxostenean azaldutakoaren erakusgarri.

*Bete beharreko eremua. Gehienez ere, 1.800 karaktere.*

#### 1.2.2 Zuzenketen, berrikuspenen eta ebaluazioen emaitzak jakinaraztea

*Azal ezazu nola ematen diezun ikasleei beren emaitza akademikoen kalitatearen berri.*

*Bete beharreko eremua. Gehienez ere, 1.800 karaktere.*



## 2. DIMENTSIOA.- EMAITZAK

Emaitzak prestakuntza helburuak kontuan hartuta baloratzen dira

### 2.1.- Ikasleek lortutako arrakasta tasak eta izan duten bilakaera, taldeko eta mailako batez bestekoarekin alderatuta.

*Sistemak automatikoki deskargatuko ditu irakasleak hautatutako irakasgaien (irakasgai horren Ikasle Gida aurkeztuta) azken bost urteetan ikasleek izandako arrakasta tasak.*

Emaitzak hauetakoren bat ezohikoa dela uste baduzu, azaldu zeren ondorioa izan daitekeen.

*Bete beharreko eremua. Gehienez ere, 500 karaktere.*

### 2.2.- Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak.

Sistemak automatikoki deskargatuko *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarritutako txostena, honako informazio honekin:

- Ebaluatutako aldiko irakaskuntza enkargua eta inkesta
- Irakasgaiaren txostena (irakasgai horretako Ikasle Gida aurkeztuta)
- Irakaslearen txostena
- Sailaren txostena
- Titulazioko txostena

Ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren emaitzekin ados ez bazaude, azaldu zeren ondorio izan daitezkeen emaitza horiek.

*Bete beharreko eremua. Gehienez ere, 500 karaktere.*

### 2.3.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak

Sistemak zuzendutako doktorego tesiak (defendatutakoak) eta zuzendutako edo gainbegiratutako lanak (gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, masterretan tutore gisa zuzendutako lanak, borondatezko praktiketako lanak eta karrera/master amaierako proiektuak) deskargatuko ditu. Ez dira kontuan hartuko berezko tituluetan eta ofizialak ez diren masterretan zuzendutako lanak.

Zuzendu edo gainbegiratu duzun lanen bat sistemak deskargatu ez badu, adieraz ezazu jarraian horretarako ezarritako laukian. (Sistemak deskargatu gabeko merezimendu horiei buruzko ebidentziak aurkeztu beharko dira):





Jardueraren izenburua		
	EDITATU	ATXIKITU EBIDENTSIA
	EDITATU	ATXIKITU EBIDENTSIA

“Editatu” botoia sakatzean beste taula bat irekitzen da, jardueraren beste datu batzuen berri emateko:

<b>Ikasturtea</b>	
<b>Jarduera mota</b>	
<b>Titulazioa</b>	
<b>Unibertsitatea</b>	
<b>Proiektuaren izenburua</b>	
<b>Ikaslea</b>	
<b>Defentsa data</b>	
<b>Zuzentze edo gainbegiratze lanetan parte hartu zuten irakasleen kopurua (zeu barne)</b>	

### 3. DIMENTSIOA.- IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALA

Irakasleen garapen profesionala UPV/EHU**n** bikaintasuneko irakaskuntza lortzeko helburuaren arabera baloratzen da



#### 3.1.- Irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea

Lehen taulan irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetako parte-hartzeak, UPV/EHUren datu-baseetan jasotakoak, deskargatuko dira. Bigarren taulan datu-baseetan jaso gabeko beste parte-hartze batzuk gehitu ahal izango ditu irakasleak. Azkenik, horien guztien artean, garrantzitsuentzat jotzen dituen bostak zein diren adierazi beharko du, eta horiek bakarrik izango dira ebaluaziorako kontuan hartuko direnak eta azken autotxostenean jasota geratuko direnak.

Taula.- UPV/EHUren datu-baseetan jasotako kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea:

	Jardueraren izenburua	Antolatzailea, data, iraupena eta parte-hartze mota
<input type="checkbox"/>		Antolatzailea: Data: Ordu kop.: Parte-hartze mota:
<input type="checkbox"/>		Antolatzailea: Data: Ordu kop.: Parte-hartze mota:

Taula.- Kalitate instituzionalerako prozesuetako beste parte-hartze batzuk UPV/EHU**n** ebaluatu beharreko denboraldian. Ebidentziak erantsi behar dira.

	Jardueraren izenburua	Jardueraren antolatzailea, data eta iraupena	Erantsi ebidentziak
<input type="checkbox"/>	1. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.	Antolatzailea: Data: Ordu kop.: Parte-hartze mota:	
<input type="checkbox"/>	2. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.	Antolatzailea: Data: Ordu kop.: Parte-hartze mota:	

#### 3.2.- Koordinazio instituzionala

1. Irakasleak **titulazioko** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

*Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein titulaziotan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen adieraz dezan.*

2. Irakasleak **mailako** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

*Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein mailatan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen adieraz dezan.*

3. Irakasleak **moduluko** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

*Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein modulutan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen adieraz dezan.*

4. Irakasleak **irakasgaiko** koordinatzaile lanak zenbat ikasturtetan egin dituen, ebaluatu beharreko denboraldian.

*Sistemak ebaluatu beharreko denboraldian irakasleak zein irakasgaitan parte hartu duen deskargatuko du, koordinatzaile gisa zenbat ikasturtetan jardun duen adieraz dezan.*

5. Beste era bateko koordinazio instituzionala. Gehienez bost. (Ebidentziak erantsi beharko dira):

1. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.					
1 ikasturte <input type="checkbox"/>	2 ikasturte <input type="checkbox"/>	3 ikasturte <input type="checkbox"/>	4 ikasturte <input type="checkbox"/>	5 ikasturte <input type="checkbox"/>	ATXIKITU EBIDENTSIA
2. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.					
1 ikasturte <input type="checkbox"/>	2 ikasturte <input type="checkbox"/>	3 ikasturte <input type="checkbox"/>	4 ikasturte <input type="checkbox"/>	5 ikasturte <input type="checkbox"/>	ATXIKITU EBIDENTSIA

### 3.3.- Prestakuntza

#### 3.3.1.- UPV/EHUn eta bertatik kanpo jasotako prestakuntza

Taula batean irakaskuntza hobetzeko prestakuntza jarduerak, UPV/EHUren datu-baseetan jasotakoak, deskargatuko dira. Irakasleek datu-baseetan sartu gabeko beste jarduera batzuk gehitu ahal izango dituzte. Azkenik, horien guztien artean, garrantzitsuentzat jotzen dituzten zazpi jarduerak zein diren adierazi beharko dute, eta horiek bakarrik izango dira ebaluaziorako kontuan hartuko direnak eta azken autotxostenean jasota geratuko direnak. UPV/EHUtik kanpo egindako prestakuntza jardueren kasuan, nahitaezkoa izango da ebidentziak aurkeztea.

3.3.1.1. Gradu berrien curriculum garapenari buruzko prestakuntza
3.3.1.2. Irakaskuntza plana egiteko prestakuntza
3.3.1.3. Irakaskuntza metodologiei buruzko prestakuntza
3.3.1.4. Hezkuntzara aplikatutako IKTei buruzko prestakuntza
3.3.1.5. Emandako gaiak eguneratzeko prestakuntza
3.3.1.6. Materialen hizkuntza kalitatea hobetzeko prestakuntza

3.3.1.7. Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko biltzarretara, jardunaldietara, etab. joatea
3.3.1.8. Irakaskuntzarekin zerikusia duen beste prestakuntza mota bat

### 3.3.2.- UPV/EHUn eta bertatik kanpo emandako prestakuntza

Taula batean emandako prestakuntza jarduerak, UPV/EHUren datu-baseetan jasotakoak, deskargatuko dira. Irakasleek datu-baseetan sartu gabeko beste jarduera batzuk gehitu ahal izango dituzte. Azkenik, horien guztien artean, garrantzitsuentzat jotzen dituzten zazpi jarduerak zein diren adierazi beharko dute, eta horiek bakarrik izango dira ebaluaziorako kontuan hartuko direnak eta azken autoxostenean jasota geratuko direnak. UPV/EHUtik kanpo emandako prestakuntza jardueren kasuan, nahitaezkoa izango da ebidentziak aurkeztea.

3.3.2.1. Gradu berrien curriculum garapenari buruz emandako prestakuntza
3.3.2.2. Irakaskuntza plana egiteko emandako prestakuntza
3.3.2.3. Irakaskuntza metodologiei buruz emandako prestakuntza
3.3.2.4. Hezkuntzara aplikatutako IKTei buruz emandako prestakuntza
3.3.2.5. Emandako gaiak eguneratzeko emandako prestakuntza
3.3.2.6. Materialen hizkuntza kalitatea hobetzeko emandako prestakuntza
3.3.2.7. Emandako beste prestakuntza mota bat

### 3.4.- Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak

- UPV/EHUko datu-baseetan jasotako hezkuntza berritzeko proiektuak (HBP).

Proiektuaren izenburua	Atxikitako ikastegia, taldeko kide kopurua, aldia, parte-hartzea
	Atxikitako ikastegia:
	Taldeko kide kopurua:
	Aldia:
	Parte-hartzea:
	Atxikitako ikastegia:
	Taldeko kide kopurua:
	Aldia:
	Parte-hartzea:

- Adierazi ebaluatu beharreko denboraldian UPV/EHUn egindako eta automatikoki deskargatu ez diren hezkuntza berrikuntzako beste proiektu batzuk.

Proiektuaren izenburua	Erakunde finantzatzailea, atxikitako ikastegia, taldeko kide kopurua, aldia, parte-hartzea
1. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.	Erakunde finantzatzailea:
	Atxikitako ikastegia:
	Taldeko kide kopurua:
	Aldia:
2. Eremu librea. Gehienez ere, 500 karaktere.	Parte-hartzea:
	Erakunde finantzatzailea:
	Atxikitako ikastegia:
	Taldeko kide kopurua:



	Aldia:
	Parte-hartzea:

3. Irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak. Gehienez 5 ekarpen egin daitezke.

Argitalpenaren izenburua		
	EDITATU	ATXIKITU EBIDENTSIA
	EDITATU	ATXIKITU EBIDENTSIA

“Editatu” botoia sakatzean beste taula bat irekitzen da, argitalpenaren beste datu batzuen berri emateko:

<b>Egileak</b>	
<b>Urtea</b>	
<b>Argitaletxea</b>	
<b>Argitaratutako lekua</b>	
<b>Mota (liburua, artikulua, aldizkaria, etab.)</b>	
<b>Liburukia</b>	
<b>Orrialdeak</b>	
<b>Web helbidea</b>	
<b>Kalitate adierazlea</b>	

### 3.5.- Hedakuntza

1. Irakaskuntzaren hedakuntzarekin loturiko jarduera hauetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak eman itzazu:

- Irakasle bisitari gisa beste unibertsitate batzuetan eskolak emateko gonbidapenak/egonaldiak.
- Irakaskuntzaren kanpo ebaluaziorako nazio mailako edo nazioarteko UPV/EHUren batzordeetako kide aditua.
- Gizarteari ezagutzak helarazteko jarduerak.
- Irakaskuntza jarduerarekin lotuta jasotako sariak.
- Irakaskuntza arloko aldizkariaren argitalpen kontseiluetako kidea edo irakaskuntza berrikuntzako biltzar zientifikoaren eta bestelako batzordeetako kidea.

Egonaldia/Batzordea/Jarduera/Saria	Erakundea, lekua, aldia
1. Eremu librea. Gehienez ere, 200 karaktere.	Erakundea:
	Lekua:
	Aldia:
2. Eremu librea. Gehienez ere, 200 karaktere.	Erakundea:



	Lekua:
	Aldia:
3. Eremu librea. Gehienez ere, 200 karaktere.	Erakundea:
	Lekua:
	Aldia:

 **Hau adierazten dut:**

Ebaluatu beharreko denboraldiari dagokionez eskatu zaizkidan eta aurkezten ditudan datuak egiazkoak dira, eta datuak egiazkoak direla egiaztatzeko beharrezkoak diren eta sistema informatikoak automatikoki aurkeztu ez dituen ebidentziak aurkezten ditut. Halaber, nire espedientea ebaluatzeko prozesuan zehar Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) hala eskatuz gero, datu horiek egiazkoak direla azaltzeko beharrezkoak diren agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen dut.

*Eskerrik asko zure laguntzagatik*



### **3. eranskina. Irakasleei zuzendutako galdera sorta eredua**

# UPV/EHUko irakasleen lana ebaluatzeko DOCENTIAZ programa: irakasleei zuzendutako iritzi-galdetegia.

## 1. Orria- Sarrera

Irakasle agurgarria:DOCENTIAZ programan parte hartzeagatik, hurrengo galdetegia erantzutea eskertuko genizuke

### Gald.1.- Mesedez aukeratu zure atxikitako ikastegia:

(\* Aukera bakarra)

- 121. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Gasteizko Ordezkaritza
- 125. Farmazia Fakultatea
- 127. Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Gasteizko Irakasgunea
- 130. Letren Fakultatea
- 135. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
- 151. Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
- 154. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola
- 160. Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola
- 163. Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola
- 215. Kimika Zientzien Fakultatea
- 221. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Donostiako Ordezkaritza
- 224. Zuzenbide Fakultatea
- 226. Informatika Fakultatea
- 227. Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Donostiako Irakasgunea
- 230. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- 231. Psikologia Fakultatea
- 240. Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- 251. Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
- 252. Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola
- 254. Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola
- 263. Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
- 264. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola
- 310. Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- 320. Arte Ederren Fakultatea
- 321. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
- 323. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- 324. Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Atala
- 327. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea
- 328. Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Basurtuko Irakasgunea
- 329. Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Gurutzetako Irakasgunea
- 345. Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa
- 350. Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa
- 351. Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
- 352. Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola
- 354. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
- 356. Lan Harremanen Unibertsitate Eskola
- 363. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola
- 364. Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola
- 410. Arabako Esperientzia Gelak
- 420. Gipuzkoako Esperientzia Gelak
- 430. Bizkaiko Esperientzia Gelak

### Gald.2.- Mesedez aukeratu zure ezagutza arloa

(\* Aukera bakarra)

- Zientzia Esperimentalak
- Irakaskuntza Teknikoak
- Osasun Zientziak
- Gizarte eta Zuzenbide Zientziak
- Giza Zientziak





## 2. Orria- Galdera-sorta

---

### Gald.3.- DOCENTIAZ programa:

(\* Lerro bakoitzean, erantzun bakarra)

	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslana ondo egiteko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egokia da, ikastegiei egiaztatze prozesuetan laguntzen baitie	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

### Gald.4.- Adierazi, mesedez, autotxostena egitean izan dituzun hiru zailtasun

1.-: \_\_\_\_\_

2.-: \_\_\_\_\_

3.-: \_\_\_\_\_

### Gald.5.- Adierazi zenbat ordu eman dituzun autotxostena egiten

Erantzuna: \_\_\_\_\_

### Gald.6.- Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko

(\* Aukera bakarra)

- Ez nago batere ados
- Ez nago ados
- Gutxi gorabehera ados nago
- Nahiko ados nago
- Erabat ados nago

### Gald.7.- Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da

(\* Aukera bakarra)

- Ez nago batere ados
- Ez nago ados
- Gutxi gorabehera ados nago
- Nahiko ados nago
- Erabat ados nago



**Gald.8.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:**

(\* Lerro bakoitzean, erantzun bakarra)

	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslana ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Uste baitut balioko duela nire irakaslana aintzat hartzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Gald.9.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko**

---



---



---



---



---

**Gald.10.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei**

(\* Aukera bakarra)

- Ez nago batere ados
- Ez nago ados
- Gutxi gorabehera ados nago
- Nahiko ados nago
- Erabat ados nago

**Gald.11.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdian parte hartu dudalako**

(\* Aukera bakarra)

- Ez nago batere ados
- Ez nago ados
- Gutxi gorabehera ados nago
- Nahiko ados nago
- Erabat ados nago

**Gald.12.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdian emaitzeekin**

(\* Aukera bakarra)

- Ez nago batere ados
- Ez nago ados
- Gutxi gorabehera ados nago
- Nahiko ados nago
- Erabat ados nago



**Gald. 13.- Programari edo bosgarren deialdi esperimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian**

---

---

---

---

---

**MILA ESKER LAGUNTZEAGATIK**